

Euskal ekonomiaren bilakaera 2019IIH

2019ko abenduaren 4a

1

Laburpena

2

Euskal ekonomia

BPGd

Barne eskaria

Kanpo sektorea

Lan-merkatua

Inflazioa

Sektore publikoa

Finantza-sektorea

Adierazleak

3

Ingurunea

4

Aurreikuspenak

1. Euskal ekonomia 2019IIHn, oraindik moderazioa nagusi

19IIHn EAEko **BPGd-a % 2,1** (u/u) hazi da, eta euskal ekonomiaren hazkunde-erritmoaren apaltzearen bidea luzatu du, erreferentziazko esparru nagusietan ere ikus daitekeen joera bera. Horrenbestez, Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (% 2,2 eta % 1,6, 2019 eta 2020rako, hurrenez hurren) aipatu apaltze joera horren barruan daude. Euskal **BPGd**-aren inguruko aurreikuspen adostua **% 2,1** eta **%1,9**koa da 2019 eta 2020 urteetarako, hurrenez hurren.

Barne-eskarian izan den urteko hazkunde txikiena (% 2,0) gorabeherarik gabeko **behin betiko kontsumoarekin** (% 2) konbinatu da. Azken horretan, **etxeetako behin betiko kontsumoa** (% 1,8) **gastu publikoaren** indar handiagoarekin (% 2,4) eta **kapitalaren eratze gordinaren** hazkunde apalagoarekin (% 2,2) orekatu da. Eta hori guztia kanpo sektorearen ekarpena bere horretan mantendu den bitartean (0,1 op), **Inportazioetan (-% 1,0)** eta **Esportazioetan (-% 0,9)** eman diren antzeko atzerakaden ondorioz.

Sektoreei begiratuz gero, urte arteko balioak aintzat hartuta, **Industrian** oraindik ahuldade zantzuak aurkituko ditugu (**% 0,7**), eta **Eraikuntzaren** intentsitate galera (**% 2,9**); **Zerbitzuak**, bestalde, hazten ari dira oraindik (**% 2,7**), eta apur bat hobera egin dute azken hiruhilekoan; lehenengo sektore gorabeheratsua, aldiz, murrizketa fasean dago. Nola nahi ere, azken hiruhilekoaren bilakaeran egonkortasuna izan da nagusi, eta geldialdia baieztatzen ari da.


EAEko Kontu Ekonomikoen arabera, **19IIHko okupazioa 981.000 enpleguetatik** gora dago, azken urtean **% 1,6** gora egin ondoren. Termino absolutuetan, **duela urtebete baino 15.213 langile gehiago** dago. **Zerbitzuen** sektoreak 12.603 enplegu berri sortu ditu, **Industriak** 1.102 pertsona gehiagori eman die lana eta **Eraikuntzak** beste 1.357 langileri. **PR**Aren arabera, 19IIHko **langabezia-tasa** pixkanaka hoberantz egiten ari da, eta 97.100 dira langabeak eta **% 9,2**koa langabezia-tasa.

Urriko **KPI**aren urte arteko aldaketa **% 0,5**koa da, eta, urte osoa aintzat hartuta, beheranzko bidean ari da oraindik; jaitsierak eman dira etxebizitzan, uraren prezioan, elektrizitatean, gasean eta beste erregai batzuetan. **Azpiko inflazioaren** urteko tasa **% 1,1**koa da.

2019ko urrira arte metatutako **diru-bilketa** 12.744M. eurokoa izan da, iazko epe berean baino **% 2,4** gehiago hazi ondoren. Diru-sarrera motari begiratuta, bildutako kopuru osoaren 4.509M € PFEZtik datoz eta 4.937M € BEZetik. Horiek dira diru-bilketaren kontzeptu nagusiak. EAEko **zorraren** maila **% 14,3**ra igo da, baina, hala ere, **moderatua dela** eta egonkortasunaren bidean dagoela esan daiteke.


2. Hazkundearen intentsitatea behera

EAEko BPGd-aren bariazio-tasa (%)



19IIHn EAEko **BPGd-a** % **2,1** (u/u) hazi da, eta euskal ekonomiaren hazkunde-erritmoaren apaltzearen bidea luzatu du, erreferentziazko esparru nagusietan ere ikus daitekeen joera bera, Eustaten grafikek erakusten duten moduan. Horrenbestez, Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (% 2,2 eta % 1,6, 2019 eta 2020rako, hurrenez hurren) aipatu apaltze joera horren barruan daude. Euskal **BPGd**-aren inguruko aurreikuspen adostua % **2,1** eta %**1,9**koa da 2019 eta 2020 urteetarako, hurrenez hurren.


2. EAE: barne-eskariaren jaitsiera, inbertsio apalagoaren ondorioz



Iturria: Eustat, gure datuak

19IIHn, EAEko BPGd-ak % 2,1eko urte arteko (u/u) hazkunda izan du. **Barne-eskarian** izan den urteko hazkunde txikiena (% 2,0) gorabeherarik gabeko **behin betiko kontsumoarekin** (% 2) konbinatu da. Azken horretan, **etxeetako behin betiko kontsumoa** (% 1,8) **gastu publikoaren** indar handiagoarekin (% 2,4) eta **kapitalaren eratze gordinaren** hazkunde apalagoarekin (% 2,2) orekatu da. Eta hori guztia kanpo sektorearen ekarpena bere horretan mantendu den bitartean (0,1 op), **Inportazioetan** (-% 1,0) eta **Esportazioetan** (-% 0,9) eman diren antzeko atzerakaden ondorioz.


2. Ahuldadea industrian eta eraikuntzan



Iturria: Eustat, gure datuak

Sektoreei begira, urte arteko balioak aintzat hartuta, **Industrian** oraindik ahuldade zantzuak aurkituko ditugu (% 0,7), eta **Eraikuntzaren** intentsitate galera (% 2,9); **Zerbitzuak**, bestalde, hazten ari dira oraindik (% 2,7), eta apur bat hobera egin dute azken hiruhilekoan; lehen sektore gorabeheratsua, aldiz, murrizketa fasean dago. Dena dela, azken hiruhilekoaren bilakaeran egonkortasuna izan da nagusi, eta geldialdia baieztatzen ari da.


2. Kontsumo publikoaren dinamismo handiagoak kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren intentsitate apalagoa konpentsatu du



PIB Trimestral (demanda)	2018			2019		
	II	III	IV	I	II	III
GASTO EN CONSUMO FINAL	2,5	2,0	2,2	2,1	1,9	2,0
-Gasto en consumo final de los hogares e ISFLSH	2,6	2,3	2,6	2,2	1,9	1,8
-Gasto en consumo final de las AAPP	2,0	1,2	0,8	2,0	2,0	2,4
FORMACIÓN BRUTA DE CAPITAL	4,8	4,0	4,1	4,0	2,5	2,2
-Formación Bruta de Capital Fijo en Bienes de Equipo	6,1	2,9	2,1	3,3	2,2	0,8
-Resto de Formación Bruta de Capital	4,0	4,6	5,2	4,4	2,6	2,9
DEMANDA INTERNA	3,0	2,5	2,6	2,6	2,0	2,0
EXPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	2,9	2,2	0,3	-1,4	2,8	-0,9
IMPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	3,1	2,1	0,6	-0,8	2,6	-1,0
PRODUCTO INTERIOR BRUTO a precios de mercado	2,9	2,6	2,4	2,2	2,2	2,1

Barne-eskariak duela urtebete baino hazkunde apalagoa izan du (% 2,0 vs % 2,5), eta gorabeherarik gabeko behin betiko kontsumoarekin (% 2,0) konbinatu da. Azken horretan eragina izan dute kontsumo publikoaren hazkunde nabarmenak (tasa bikoiztu du, % 2,4raino) eta etxeetako kontsumoaren murrizketak (% 1,8), **kapitalaren eratze gordinaren** hazkunde apalagoarekin (% 2,2) batera.





2. Gerra komertzialak ondorio negatiboak ditu euskal enpresen kanpo-jardueran



Iturria: Eustat

Esportazioek (-% 0,9) antzeko joera izan dute, energiaren esportazio apalagoen eta **Inportazioen** murrizketaren (-% 1) erruz; horren eragin konbinatuak 0,1pp-tan mantendu du euskal ekonomiaren hazkundeari egindako kanpoko ekarpena. Txinaren eta AEBen arteko mugasarien gatazkak eragin zuzena dauka nazioarteko merkataritzaren egoera lausoan, eta ondorioak are nabarmenagoak dira neurri txikiagoko eta kanporako joera handiagoa duten ekonomietan.

2. Zerbitzuen sektoreak eutsi dio euskal ekonomiaren hedapenaren pisuari




Iturria: Eustat


Zerbitzuek apur bat hobera egin dute (% **2,7**), eta haien joera egonkorrari esker, **Industriaren** (% **0,7**) eta **Eraikuntzaren** (% **2,9**) intentsitate apalagoa orekatu dute. Hegazkortasuna handia da lehenengo sektorean.

2. Zerbitzuen ekonomia bat

Estructura y Variación PIB IIIT19



Aportación al PIB IIIT19 (pp)




Iturria: Eustat, gure datuak


Duela urtebete (hau da, 18IIIHn), **Zerbitzuen** sektorea EAEko BPGd-aren % **61,9** zen, eta termino errealetan % **2,7** hazi ondoren, BPGd-ari ekarpen handiena egiten dion sektorea da, **1,7 pp**-rekin. **Eraikuntza**, % **5,3**ko pisuarekin, % **2,9** hazi da eta **0,2** pp-ko ekarpena egin du; **Industria** ere antzera, % **21,9**ko pisuarekin BPGd-an, % **0,7** hazi da termino errealetan, **0,2 pp**-ko ekarpena eginda.

2. Industria, produktibitatearen buru

Estructura Empleo y PIB IIT19



Productividad sectores IIT19 (%)




Iturria: Kontu ekonomikoak. Eustat. Gure datuak

19IIHn, BPGd-a sortzeko egiturari eta sektorearen arabeko enpleguaren datuari begiratuta, enplegu bakoitzeko kalkulaturako produktibitatearen buruan oraindik Industria dagoela ikus daiteke, eta BPGd-an % **21,5**eko parte-hartzea daukela eta epealdi horretako enpleguaren % **21,3**aren erantzulea dela. Beste aldean, lehenengo sektorea daukagu, kalkulaturako produktibitate-tasa apalagoekin; Eraikuntza eta Zerbitzuek, bestalde, antzeko produktibitatea daukate.

2. Enplegua eta langabezia suspertze-bidean

Langabezia-tasa



18IIIHn baino 15.000 langile gehiago.

Puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo




Iturria: Kontu ekonomikoak. EPA. Eustat.

EAEko Kontu Ekonomikoen arabera, **19IIHko okupazioa 981.000 enpleguetatik** gora dago, azken urtean **% 1,6** gora egin ondoren. Termino absolutuetan, **duela urtebete baino 15.213 langile gehiago** dago. **Zerbitzuen** sektoreak 12.603 enplegu berri sortu ditu, **Industriak** 1.102 pertsona gehiagori eman die lana eta **Eraikuntzak** beste 1.357 langileri. **PRaren** arabera, 19IIHko **langabezia-tasa** pixkanaka hoberantz egiten ari da, eta 97.100 dira langabeak eta **% 9,2**koa langabezia-tasa.


2. Tentsiorik ez prezioetan, urrira arteko beheranzko joeran agerikoa den moduan

Inflazioa sektoreka

EAEko bilakaera



Inflazioaren bilakaera




Iturria: INE


Urriko **KPI**aren urte arteko aldaketa % **0,5**ekoa da, eta, urte osoa aintzat hartuta, beheranzko bidean ari da oraindik; jaitsierak eman dira etxebizitzan, uraren prezioan, elektrizitatean, gasean eta beste erregai batzuetan. **Azpiko inflazioaren** urteko tasa % **1,1**ekoa da.

2. Kontu publikoak: egonkortasuna eta moderazioa

Deuda de la CAE según PDE



CAE: Capacidad (+) o Necesidad (-) de Financiación




2019ko urrira arte metatutako **diru-bilketa** 12.744M. eurokoa izan da, iazko epe berean baino % 2,4 gehiago hazi ondoren. Diru-sarrera motari begiratuta, bildutako kopuru osoaren 4.509M € PFEZtik datoz eta 4.937M € BEZetik. Horiek dira diru-bilketaren kontzeptu nagusiak. EAEko **zorraren** maila % **14,3**ra igo da, baina, hala ere, **moderatua dela** eta egonkortasunaren bidean dagoela esan daiteke.

Finantzaketa gaitasunari begira, euskal sektore publikoak **267M euroko superabita** izan zuen 19IIHko itxieran


2. Kreditu pribatuak behera egin du eta gordailu pribatuak gora

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2019ko ekaina

S. Pribatuaren kredituak



S. Pribatuaren gordailuak




Sektore pribatuaren kredituak (-% 2,8 EAEn eta -% 1,3 Espainian) ezin izan ditu murrizketak gainditu; agenteen aurreikuspenen hondatzeak pisu handiagoa izan du interes-tasa apalen erakarmenak baino. EAEko **sektore pribatuaren gordailuak** (% 4,2) hazi egin dira, norbanakoen saldoak finantza-erakundeetan geldirik daudelako, etxeetan konfiantza galdu delako eta bizi dugun egoerari ziurgabetasun handiagoz begiratzen zaiolako.

2. Gordailuen hazkundeak eta Kredituen murrizketak *gap* positiboa handitu dute

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2019ko ekaina



S. Pribatuaren Kredituen eta Gordailuen bariazioaren %



Iturria: BdE

Ekainean, **sektore pribatuaren gordailuen saldoa (80.490 M€) kreditu pribatuen saldoaren gainetik zegoen (62.390 M€)**, 18.100 M € gainetik hain zuzen ere. Kreditu pribatuek gordailu pribatuetan duten pisua % 79,5ean kokatu da EAEn (% 95,6 Espainian).

2. Etxebizitza-hipotekak: atzeraldi handia




Iturria: INE

Hondoratzea. Irailean, hipoteken merkatuak abuztuko jaitsieraren jarraipena bizi izan du, Hipoteka Lege berria indarrean sartzearen ondorioz eta agenteen konfiantza zigortu duen finantza-egoeran ikusitako atzeraldiaren sintomen eraginez; Espainian **-% 26,5** egin da atzera zenbatekoan eta **-% 30,7** eragiketa kopuruan. **EAEn** antzekoak dira datuak: **-% 20,7** zenbatekoan eta **-% 23,4** eragiketa kopuruan.

2. Berankortasuna. Kriaren aurreko mailetatik gertu

Estaldura eta berankortasunaren bilakaera




2019ko irailaren amaieran, finantza-sistemaren OSR kredituaren **berankortasun-tasa** -0,10 portzentajeazko puntu (pp) murriztu da, eta % **5,14**an dago orain. Finantza-sistemaren OSR kredituaren estaldura-tasa, aldiz, azken hilean -0,29 pp murriztu da, eta % **61,36**an dago orain.


3. Euskal ekonomia uneko adierazleen arabera...

MENSUALES	jun-19	jul-19	ago-19	sep-19
IPI (INE)	-3,5	-2,0	3,3	1,9
Consumo de gasolina , gasóleo y fuelóleo™ (Cores)	-8,2	-1,3	-9,8	-6,7
Matriculación de turismos (Ikerbide 1.25.3)	-15,4	-14,1	-22,6	12,3
Hipotecas. Número (INE)	9,3	13,8	-22,9	-23,4
Hipotecas. Importe (INE)	19,0	14,9	-21,0	-20,7
Compraventa viviendas	-6,1	17,9	35,4	-11,9
Recaudación DDFF: Total impuestos (GV)	2,6	1,7	1,3	2,8


IPI




Recaudación: Impuestos concertados




Matriculación vehículos



Consumo gasolina, gasóleo y fuelóleo



3. Euskal ekonomia. 2019-2020rako aurreikuspenak. Dezelerazioan



Iturria: INE, Eustat eta gure datuak

Euskal ekonomian agerikoa da BPGd-aren bilakaerak bizi duen dezelerazioa, estatuko egoerarekin bat datorrena. 2019rako BPGd-aren aurreikuspena % 2,1ean birkokatu da ekitaldi osorako eta % 1,9an 2020rako.

4. Euskal ekonomia. Aurreikuspenak

Euskadi	PIB		
Panel de Previsiones		2019	2020
Confebask	dic.-18	2,5	
Funcas	jun.-19	2,2	
Hispalink (VAB)	jul.-19	2,2	2,0
BBVA	oct.-19	1,7	1,7
CEPREDE	oct.-19	1,9	1,7
Gobierno Vasco	nov.-19	2,2	2,0
Media		2,1	1,9
<i>Máximo</i>		<i>2,5</i>	<i>2,0</i>
<i>Mínimo</i>		<i>1,7</i>	<i>1,7</i>

Fuente: DEP-nov.2019

4. Hazkunde globalaren moteltzea

Munduko ekonomiaren aukerak, NDFren aurreikuspenen berrikuspena 2019ko azaroa


	2018	2019	2020
Producto Mundial	3,6	3,0	3,4
Economías avanzadas	2,3	1,7	1,7
Estados Unidos	2,9	2,4	2,1
Zona del euro	1,9	1,2	1,4
Alemania	1,5	0,5	1,2
Francia	1,7	1,2	1,3
Italia	0,9	0,0	0,5
España	2,6	2,2	1,8
Japón	0,8	0,9	0,5
Reino Unido	1,4	1,2	1,4
Economías emergentes y en desarrollo	4,5	3,9	4,6

[2019ko azaroko NDFren aurreikuspenak](#)

NDFk apur bat beherantz zuzendu du 2019rako % **3,0**ko hazkundera, eta % **3,4**an kokatu du 2020rako aurreikuspena; aurreikuspenen ondoren, jardueren hozte orokor bat eman da, batez ere automobilgintzan, Estatu Batuen eta Txinaren arteko gerra komertzialak dakarren konfiantza ezagatik eta ekialdeko herrialdearen eskari apalagoagatik, bere ekonomia-eredua aldatzearen ondorioz.

4. Munduko hazkundearen dezelerazioa


Munduko ekonomiaren
aukerak 2019-2020



NDF

BPGd-aren hazkundera Spainian

BPGd: % 2,0 (u/u) 2019IIIHn




ELGERen arabera, munduko hazkunderak erritmo apalagoa dauka finantza-krisitik, eta 2019an % 2,9an kokatu da, eta % 3 inguruan 2020an, duela urtebete aurreikusitako % 3,5etik urrun. Munduko hazkundearen aurreikuspenak hondatzen ari dira, ziurgabetasun politikoaren eta merkataritza eta inbertsio fluxuen ahultasunaren erdian.

Ildo horretatik, **euroguneko** BPGd-aren hazkundera 2019an % 1,2koa izango dela esan du NDFk, eta % 1,4raino igoko dela 2020an. Zuzenketa hori orokorra da eta bereziki deigarria Alemaniaren kasuan, 2020an uztaileko aurreikuspena baino puntu erdi gutxiago haziko baita, % 1,2 hain zuzen ere. Eurogunea are gehiago moteldu da urte amaiera honetan.

Espainiako ekonomia, % 2,0ko hazkunderarekin 19IIIHn, azken hiruhilekoetako dezelerazio bidean dago oraindik, nahiz eta eskari nazionalaren ekarpena igo egin den, batez ere kontsumo pribatua eta ekipo-ondasunen inbertsioa; kanpo-ekarpenak, aldiz, behera egin du, inportazioen eraginaren ondorioz. Egoera politikoarekin loturiko ziurgabetasunak eragin negatiboa izan du agenteen espektatibetan. Hala ere, Eurogunearekin alderatuta, diferentziala positiboa da oraindik.

4. Aurreikuspenak: jardueraren murrizketa



Iturria: Funcas

Ekitaldi honetarako aurreikusitako **inflazioaren** jaitsiera nabarmena da oraindik, produktu energetikoen jaitsieragatik, eta % **0,7**ra jaitsi da, aurreko adostasuna baino hamarren bat gutxiago; 2020rako % 1,0eko igoera txiki bat aurreratu da.

Lan-merkatua moteldu bada ere, langabezia-tasa % 13,9raino jaitsi da, eta enpleguaren hazkundearen aurreikuspena % **2,2**an mantendu da 2019rako, 2020rako % 1,4raino erori den bitartean, produktibitatearen jaitsierarekin. Espainiako ekonomiaren jarduera munduko eta Europar Batasuneko ekonomien moteltze orokorraren barruan kokatu da.

4. Aurreikuspenen taula. Espainia

Última actualización

[<< Volver al Índice](#)

nov-19

España

	PIB		IPC		PARO (EPA)	
Panel de Previsiones	2019	2020	2019	2020	2019	2020
AFI	1,9	1,7	0,7	0,8	14,2	13,3
BBVA	1,9	1,6	0,7	1,1	14,1	13,3
Bankia	1,9	1,5	0,7	1,3	13,9	12,9
Caixabank	1,9	1,5	0,7	1,0	13,9	12,6
CEEM	2,0	1,6	0,8	1,2	14,1	13,4
CEPREDE	2,0	1,7	0,7	1,0	14,2	13,8
CEOE	2,0	1,6	0,7	0,8	14,1	13,2
Funcas	1,9	1,5	0,7	1,0	14,1	13,0
ICAE-UCM	1,9	1,5	0,8	1,2	14,0	13,1
IEE	1,9	1,5	0,7	0,8	14,1	13,1
Intermoney	1,9	1,6	0,7	0,9	14,0	13,2
CONSENSO (media)	2,0	1,6	0,7	1,0	14,1	13,3
Máximo	2,0	1,8	0,8	1,3	14,2	13,8
Mínimo	1,8	1,5	0,6	0,8	13,9	12,6
PRO MEMORIA						
Gobierno (oct 19)	2,1	1,8	-	-	13,8	12,3
BdE (septiembre 19)	2,0	1,7	0,8	1,1	14,1	13,6
CE (nov 19)	1,9	1,5	0,9	1,1	13,9	13,3
FMI (oct 19)	2,2	1,8	0,7	1,0	13,9	13,2
OCDE (mayo 19)	2,2	1,9	1,0	1,6	13,8	12,7

Fuente: funcas

Euskal ekonomiaren bilakaera 2019IIH

2019ko abenduaren 4a